



ORIOKO ARTISAU eta SORTZAILE AZOKA Parte hartzeko oinarriak

AZOKARI BURUZKO DATUAK

EGUNA: 2025ko maiatzaren 11, igandea.

LEKUA: Herriko plaza eta Aritzaga kalea (oinezkoen eremua).

ORDUTEGIA: 10:00-14:30

POSTU KOPURUA: gehienez, 25 postu baimenduko dira, espezialitate hauetan banatuta:

Ogia eta gozogintza:	2 postu
Taloak:	1 postu
Eztia eta Gazta:	2 postu
Lore-apaindurak eta landareak:	2 postu
Bitxigintza:	3 postu
Zurgintza:	2 postu
Zeramika edo buztina:	2 postu
Xaboi eta ukenduak:	2 postu
Larrua eta ohialgintza:	2 postu
Bestelako eskulangintzak:	2 postu
Orio- Aiako eskulangileak:	5 postu

PARTEHARTZE IRIZPIDEAK

1. artikulua: **PARTEHARTZEKO EREMUA**

Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Iparraldean bizi diren sortzaile eta artisauak gonbidatuko ditu azokak.

2. artikulua: **ARTISAU ETA SORTZAILEEN PROFILA**

- 2.1. Erakusgai edo salgai egongo diren produktuak norberak egindakoak izango dira.
- 2.2. Inolaz ere ez da onartuko beste artisau eta sortzaileek egindako produktuak saltzea.
- 2.3. Azoka egunean langintzaren erakustaldia egingo duten artisauak hobetsiko dira.
- 2.4. Propio zehazten da ez dela bigarren eskuko elementuen salmenta gunea.

3. artikulua: **IZEN EMATEA**

- 3.1. Deialdi honek informazio izaera du soilik, dokumentu hau jaso izanak ez du azokan parte hartzeko eskubiderik ematen.
- 3.2. Aurreko edizioetan parte hartu izanak ez du automatikoki parte hartzeko eskubiderik ematen.

3.3. Eskerak derrigorrez telematikoki aurkeztu behar dira www.orio.eus bulego elektronikoan, ziurtagiri digitala (Izenpe, eDNI, Bak@, ...) erabilita.

3.4. Gehitu beharreko dokumentazioa:

- a) Parte-hartzeko eskaera inprimakia behar bezala beteta eta izenpetuta.
- b) Dagokion herrialdean artisauen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatuko duen ziurtagiri eguneratua.
- c) Zergadunaren Jarduera Ekonomikoen ziurtagiri eguneratua (Foru Ogasuna).
- d) Autonomoetako azkeneko erreziboaren fotokopia.
- e) Erakusgai egongo diren produktuen 2 argazki eta aurrez muntatutako postuaren argazki bat.
- f) Curriculum vitae laburra.

3.5. Eskerak aurkezteko epea martxoaren 10etik apirilaren 4era izango da, biak barne.

AUKERAKETA IRIZPIDEAK

4. Artikulua: HAUTAKETA ETA ONARPENA

4.1. Parte hartzeko oinarriak betetzen ez dituzten artisauak kanpoan uzteko eskubidea izango du Oriko Udalak, eta azokaren araudia betetzen ez dituzten produktuak postuetatik kendu egingo dira.

4.2. Orio eta Aiako eskulangileen kasuan, kualifikaziorik ez duten eta eskulangintza jarduera iraunkorrik egiaztatzen ez duten pertsonentzat plaza kopuruaren %20a gordeko da. Horrez gain, Orio eta Aiako artisauak ez dituzte 3.4. puntuan zehaztu diren b), c), d), e) eta f) puntuetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko.

4.3. Irabazi asmorik gabeko elkarteek lehentasuna izango dute postuak banatzerako orduan.

4.4. Azoka egunean langintzaren erakustaldia egingo duten artisauak hobetsiko dira.

4.5. Azokaren aniztasuna bermatzearen, eskaera ezberdinen artean zozketa egingo da, 2025ko apirilaren 11n, 13:00etan udal batzar aretoan

4.6. Antolatzaileek arau hauek interpretatzeko eta egoki ikusten duten moduan aldatzeko eskubidea izango dute.

PRODUKZIO IRIZPIDEAK

5. Artikulua: **ORDAINSARIA.**

Artisau Azokan parte hartuko duten artisauek EZ DUTE dieta moduan diru saririk jasoko.

6. Artikulua: **ORIOKO UDALAREN ARDURAK**

ORIOKO UDALA ez da suertatu litezkeen kalte, galera edo lapurretatik erantzule izango.

7. artikulua: **KARPA**

Artisau bakoitzak bere karpa ekarriko du, inoiz ez 5x3m baino handiagoa.

Karparik ez duten artisau edo sortzaileek eskaera orrian zehaztuko dute. Kasu honetan 3x3metroko karpa jarriko zaio, Orioko Udalak eskura dituen karpak amaitzen diren arte. Argindarra beharrezkoa izanez gero eskarian zehaztuko da.

Karpapean 2 mahai jarriko dira artisau bakoitzeko (baimendutako neurriak: 2 mx 0,7 m)
Karpapean 2 aulki jarriko dira artisau bakoitzeko.

8.artikulua: **MUNTAIA ETA DESMUNTAIA**

Hauexek izango dira muntaia orduak: 8:00-10:00.

Hauexek izango dira desmuntaia orduak: 14:30-15:30.

9.Artikulua: **KARGA ETA DESKARGA. APARKALEKUA**

Postuak muntatzeko eta deskargatzeko, artisau bakoitzak auto baten sarbide baimena izango du. Ondoren, oinezko gunetik atera beharko du eta ohiko aparkalekuetan aparkatu. Ez da artisauentzako aparkalekurik erreserbatuko.